

## Martin Ugalderekin solasean. *Egunkaria*-k urtea bete

Joseba Barriola

*Hika*, 15. zk., 1991-12-10: 30-31.

*Martin Ugalderegana hurbildu gara zoriona ospatzeko. Euskaldunon Egunkariako Administrazio Kontseiluko lehendakaria da. Horregatik eta bere baitan jasotzen duelako esperientzia euskaltzale fina berarekin hitz egin dugu.*

Hirurogeitamar urteko andoaindar hau goiz guztia bere lanak burutzen aritzen da; arratsalderako geratu gara. Bezperan, arratsaldean, Bilboko IRALEko ikasleak egonak ziren berarekin. Kontent zegoen, ikasle haiengan nabaritu zuelako euskararekiko borondatea, maitasuna.

Politika munduan, berriz, bihotz gutxi ikusten du. "Buruarekin ari dira beti kalkulaten eta kalkuluak ez dira gizakiaren muina. Kalkuluek baino bihotzaren eraginak eta lanek gehiago balio dute. Gizontza lanean. Politikan ere hala beharko luke".

*Euskararentzat kalkuloek balio al dute?*

MARTIN UGALDE. Beti balio dute. Baina nere ustez sentimenduak kalkuloak baino gehiago balio du gizonaren izatean. Euskara kalkuloz ikasten baduzu, adibidez lanpostu bat lortzeko, hortarako haina ikasiko duzu. Hortan geratzen dira, eta handik irtetzerakoan erdaraz hasten dira. Zoritxarrez, hori ari da gertatzen. Sentimenduarekin hasiko balitz, euskaldun berri horrek beste bide bat egingo luke.

*Noiztik eta nola sortu zitzaizun Euskararekiko atxekimendua?*

M. U. Zentzua dudan ezkerok euskaraz hitzegin dut. Neri Euskara berez etxetik etorri zait. Aitona nuen goierritarra, Zeraingoa eta bertsolaria, Eta amaren ama Txirritaren lehengusu propioa zen. Etxea santuario bat zen. Aita horretan oso gogorra genuen: dena euskaraz.

Gogoratzen naiz, hala ere, nere amari laguntzen niola Telefonikara. Itxuenean zegoen. Aparailua ikusgarria zen. Ama jartzen zen hizketan eta erdaraz hasten zen. Ohitu nintzen ni ere hortara. Baina gero hasi nintzen pentsatzen: zer izango ote duen aparatu horrek? Erdaraz dakina bakarra izango al da?

Dotrina euskaraz ikasi genuen baina eskolan erdaraz egin beharra genuen. Eta horrek sortu zidan min bat. Konturatzen zara ez zela garbia hura; erdaraz hitzegera behartuak geundela eta behartze horren kontra geundela. Soldaduskan, berriz, eta handik amari idazterakoan erdaraz egiten genuen. Alde batetik bazegoen zentsura bat, ez zuten uzten. Baina horrez gain bazegoen beste zerbait: karta bat ezin zela euskaraz egin. Erdaraz esan behar zirela gauzak! Hori sartu zitzaigun buruan. Jarri ginen hortara, euskarak ez zuela ezertarako balio, bakarrik etxean egiteko.

Gero, gerra izan zen golpe handia. Batez ere Bilbora iritsi eta ikusi nuenean erdararen pisu handia. Horrek zirarra bat egin zidan eta konturatu nintzen Euskal Herria zela, Bilbo baino ez zela euskalduna. Ikusten nuen industria, eta kemena eta indarra dagoen lekutan euskara gutxi. Zergatik hori? Horrek sortzen zizun kezka bat eta balio gutxiko hizkuntza bazenu bezala. Gero, kanpora joatean, ikusten duzu herria bihotzaren neurri batean. Santander aldetik atera ginen gu. Eta konturatzen zara erdara dena zabaldua zegoela eta euskara inork ez zekiela. Euskara gure herriko gauza zela, gure herriari atxikia zegoen hizkuntza zela. Eta joan nintzen sakontzen, barruratzen hizkuntza. Eta barruko estuasun hori, euskara galtzeko estuasun horrek beti dirau nere barnean.

*Nola erantzun zenion barruko estuasun horri?*

*M. U.* Venezuelan hasi nintzen nik nekien euskararekin klaseak ematen hango jende gazteari Euskal Etxean. Hasi nintzen gauza batzuk euskaraz egiten. Horien artean umeentzako kontuak, ikastolak orduan hasi berriak ziren eta horientzako. Antzerki lan bat "Ama gaixo dago". Nere hamalau urteko hizkuntzarekin egin nituen lanak eta hiztegitxo txikitxo baten laguntzarekin. Sentipena handia eta erabiltzeko gogoia, baino errekurtsio gutxi.

*Venezuelatik etorri zinenean bete betean harrapatu zintudan Batuaren arazo larriak.*

*M. U.* Hona etorri nintzenean euskararekin berebiziko pena handi bat izan zuen, Euskara Batuaren eta hatxearen inguruan izan ziren arazoak zirela eta. Etorri nintzenerako 48 urte nituen. Banituen lagun gazteak baina batez ere nere lagunak jende heldua ziren; apaizak eta hola, eta horien artean "H"aren kontrako asko. Bestetik, gazteekin errez ibiltzen nintzen. Eta borroka hori niretzat sufrimendu handi bat izan zen. Arrazionalizatu nahi izan nuen gure arazoa eta elkarrizketa batzuk egin nituen aldeko eta kontrakoekin, denok Euskaltzaindiakoak. Konturatu nintzen zein zen arazoa eta hasi nintzen erabiltzen. Handik aurrera hasi ziren telefonozko mehatxuak, irainak niri eta andreari... Izugarri itsusia izan zen eta izugarri sufritu nuen.

*Nola sartu zinen Egunkariaren egitasmoan?*

*M. U.* Esan zidaten, bai, zaharra ninzela horrelako saltsetan sartzeko. "Hor ere hartuko dituzu kolpeak, Jaurlaritza horren aurka dago..." Bai, ez zen erraza, baina nik ikusi dut hor euskararen bihotza. Gazte horietan. Euskararen bihotzak egin du *Egunkari* hori. Ezin zuten 40 urtetik gorakoak egin. Jende gazteak egin du diru gutxirekin, gutxi irabaziz, bihotza jarritz. Hori gabe ezin zen *Egunkaria* atera. *Egunkaria* ari da ateratzen mirari bat bezala.

*Nola dago gaur egun Egunkaria?*

*M. U.* Ondo. Egunero 30.000 pertsonen irakurtzen bait dute. Baina dugun mailarekin ezin gara konforme gelditu. 32 orrialdeko *Egunkaria* egitea oso urria da, oso pobrea. Orain arte balio izan du, ezerezetik hori egitea heldu garelako. Bizitzen jarraitzeko beste egunkariak gaur erabiltzen dituzten modu berak behar ditu. Adibidez, astean 6 egun egiten dugu. Astelehenean ez da ateratzen, kirol mundua hain garrantzitsua izanik ere.

Dirurik ez daukagulako. Gero, eskualde edo herrietako ale bereziak atera beharko genituzke.

*Jaurlaritzaren jarrera aldatzen ari al da?*

M. U. Hiru urtez egon nintzen Euskararen Arduradun bezela Jaurlaritzan. Behin baino gehiagotan aipatu nuen egunkariaren arazoa eta beti ezinezkoa izan da. *Egunkariaren* asmoa atera zenean, hasieran eta oraintsu arte ez ziguten onartzen. Ezta hitzegiteko ere. Orain ikusi dute urtebete iraun duela eta aurrera goazela. Badirudi konturatzen ari direla. Izan dugu dei bat eta Joseba Arregirekin egon gara lehen aldiz orain dela bi aste. Lehen pausoa behintzat eman da.

*Laburbilduko al diguzu urte honetako esperientzia?*

M. U. Esan zidaten bazegoela jende gaztea prest egunkari euskalduna ateratzeko eta hitzegin nuen Joxemi Zumalaberekin, eta Torrealdei eta Pello Zubiria eta Iñaki Uria eta besteekin. Eta ikusi nuen horiek duten prestutasuna, daukaten sentipena eta lanerako gogoia, eta gero egin dituzten ahaleginak jendea biltzeko eta laguntzak aurkitzeko. Zerua bezela aurkitu dut nik hor. Ni joan naiz horra elbia azukretara bezela. Neretzat izan da nerebiziko poza.

Eta gero ikusi dut horrela izan dela. Jende ona, langilea, zintzoa. Oso pozik nago ekipo horrekin. Maitasuna dagoenean gainontzekoak pasatzen dira. Maitasuna ez dagoenean orduan dena kalkulatu behar da. Jaurlaritzan ez dugu urte osoan berotasunik aurkitu. Orain baliteke aldatzea; hitzarmenik ez dugu egin baina behintzat hitzegiten hasi gara.

*Nola ikusten duzu gaur egun euskararen egoera?*

M. U. Duela urte batzuk, hitzaldi batean, oso baikor azaldu nintzen. Bizkaitar bat etorri zitzaidan eta esan zidan: "esan dituzun hitzak sentitzen al dituzu?". Bai, esan nion. Nik, kezka guztiekin, fedea dut. Euskararen egoeraz kezkaz beteta bizi naiz, baino nik fede bat daukat. Fedea euskararen, aurrera aterako dela, bai. Baina, noski, fedea eduki eta erakutsi egin behar da, horren alde lana egin. Ez da euskaldun garbia sentitzen duena egiten ez badu. Itxaropena dut. Datuak? Behar bada ez dira hain baikorrak. Eta behar bada ezin esplikatu nuke nola aterako den aurrera. Baina fedea dut. Eta fedea dut ni bezela beste jende asko ari delako fede hori jasotzen. Eta fede hori indartzen ari da. Inoiz baino biziago gaude. Bihotzaren janaria da gaurko egoera. Euskararen bihotz hori zabaltzen ari da. Bere ziztadak indartsuagoak dira.

Martin Ugalde oraingo eginbehar, itxaropen, erreto, premietaz luzatzen da. Lurraldearen falta, lehenik. "Estatuto territoriala" hizkuntzarentzako. Gero, bestelako Jaurlaritza behar dela. Eta bestelako elkartzeko biderik aurkitu beharra. Gazteak ikusten ditu itxaropentsu. Horiek dira euskararen ikurriña daramatenak eta hor etorkizun garbia ikusten du.

Gipuzkoakoa errezena ikusten du. Oso jantzia. Indar handia eta gazteria. Bizkaiko arazoa, batez ere Bilbokoa, oso gogorra. Erretorik handiena. Saturazio bidez ikusten du euskara babestu daitekeela. Horretarako Jaurlaritzak egin duena baina mila aldiz

gehiago egin beharko litzateke. 4-5 irrati, Telebistak beste lan bat. 3-4 egunkari. Bizkaiak bat berezia, bizkaierari lagunduz...

*Betidanik gure herriaren alde eta euskara ikasi ez duen bati, zer esango zenioke?*

*M. U.* Ea ez den lotsatzen. Euskarari maitasunik ez erakustea dela. Ez dela euskaldun baten jokabidea. Euskaraz ez badaki –nahiz eta frantsesa eta inglesa jakin– berak uste duen baino gizon txikiagoa dela.